

DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIA 1960

Etzuen ifork lanik bialdu eta urte bete luzatu zan lanak aurkeztutzeko epea.

TORIBIO ALZAGA TEATRO-SARIA 1961

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oifnarriak auek dira:

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke teatro-lanak.
- b) Gaia nai dan bezelakoa izan ditek, eta lanak norberak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.
- d) Gutxienez ordu bete iraun bear izango du eta ekitaldi bi izan. Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora beera).
- e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu eziña.
- f) Saria, gabe gelditu ditek egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.
- g) Batzarrea Bizkaiko Ahorro Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez lanak bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.
- h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6, Bilbao) 1961-gko. uztailaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

EUSKAL-SARIKETE A AMAR URTETIK AMABOST URTERAKO NESKA-MUTIL BIZKAITARRENTZAT (1961-rako)

1.—Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko neska-mutilentzat. 1961-gko. maiatzean egingo da adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amabost urtera izan bear dira. Zimentarriak oneik dira:

2.—Sariak izango dira:

- a) Amabi urtetik amabost urtera dituezanentzat: 600 pesetako sari bat; bi 400 pesetako; 350 pesetako bat; iru 300 pesetako; bost 250 pesetako; sei 200 pesetako; eta sel 150 pesetako.